

**OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK, ETA HAUTAKETA PROZESURAKO KANPOKO DEIALDIA, GIZA BALIABIDEEN ETA ORIENTAZIOAREN ZUZENDARITZAKO LANPOSTU FINKOA ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA.**

23/2022 Foru Arauak, abenduaren 20koak, Arabako Lurralde Historikoaren 2023. urterako aurrekontua betearaztekoak, 2024. urterako luzatutakoak, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendaritzarako lanpostu baten aurrekontuko zuzkidura jasotzen du sozietatearen langileei buruzko eranskinaren barruan. Lanpostu hori hutsik dago.

Plaza huts horren, eta hala badagokio, sortu berri den plazaren eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, eta Indesa 2010 SL sozietatearen hitzarmenak berak onetsi zituzten lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langile publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testuategina onesten duenak, eta abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, euskal enplegu publikoaren buruzkoak, dagokion hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Horren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publizitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT

**LEHENENGOA.- Onestea oinarri orokorrak eta espezifikoak, zein kanpoko deialdiaren bidez Giza Baliabideen eta Orientazioaren Zuzendaritzako lanpostu finko bat estaltzeko hautaketa prozesua arautu behar duten eranskinak.**

**BIGARRENA.- Onestea kanpoko deialdiaren bidez egindako hautaketa prozesuaren deialdia, aipatutako plazara sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.**

**HIRUGARRENA.- Izendatzea aurreko xedapenean adierazitako hautaketa prozesuaren hautaketa organo gia honako hauek:**

- Lehendakaria: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoa, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren orientazioko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren finantza zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren eragiketen zuzendaritza, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Idazkaria: Indesa 2010 SL enpresaren zuzendaritza juridikoko teknikaria, edo eskuordetzen duen pertsona.

Bertaratu ahalko da, hitzarekin baina botorik gabe, Enpresa Batzordeko eta enpresaren Gerentziako Zuzendaritzako ordezkari bat, eta hala badagokio, eta beharrezkotzat jotzen bada, aholkularitza enpresetako batetik etorritako langileak.

**LAUGARRENA.- Onestea QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L. eta CAMPO Y OCHANDIANO S.L. aholkularitza enpresen partaidetza lehen fasean (publizitatea, hautagaien hautaketa, hautagaitzak biltzea eta baldintzak betetzen dituzten aztertzea), eta bigarren fasean QUALIS CONSULTORES DE TALENTO S.L aholkularitza enpresarena, ariketak, test psikoteknikoa eta puntuazioen zerrenda egiten parte hartuz, 16-24 kontratu txikiaren arabera.**

**BOSGARRENA.- Argitaratzea ebazpen hau korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea enpresa batzordeari, aurretik adierazitako aholkularitza enpresek lankide gisa egin ditzaketan argitalpen eta jakinarazpenak gorabehera.**

Gasteiz, 2014ko abenduaren 18 an.

Ander Eguidazu

Indesa 2010 SL enpresaren zuzendari kudeatzailea